

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Zerga ordenantzaren aldaketa: Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen zerga ordenantza

Udalbatzak, 2023ko otsailaren 8ko osoko bilkuran, zerga ordenantza hau aldatzea erabaki du: Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza.

Espedienteak udal idazkaritzan egongo dira ikusgai hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesa dutenek epe horretan egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erabaki hau behin betikotzat joko da, erreklamaziorik aurkezten ez bada. Erreklamazioren bat badago, beste erabaki bat hartuko da horren gainean.

Argitara ematen da, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruña Oka, 2023ko otsailaren 14a

Alkate-lehendakaria
MIGUEL ANGEL MONTES SANCHEZ